

Ordiziako Udaletxeko Ekitaldi Aretoan, bi mila eta zazpiko ekainaren 16ko 9:30ak direnean. Behin-behineko Idazkariak jakinarazi du bilkura honen helburua Udala osatzea dela, Hauteskunde Orokorren 5/85 Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta hark izan dituen aldaketek, eta orobat Tokiko Erakundeen Antolakuntzarako eta Funtzionamendurako Araudiaren 37.1 artikulua ezarritakoari jarraiki. Hauxe da, honenbestez, gai-zerrenda:

- Udalbatza Osatzea.
- Alkatea aukeratzea eta, hala badagokio, karguaz jabetzea.

Idazkari Andreak bilkurari hasiera eman ondoren, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 195.2 artikulua ezarritako Adineko Mahaia eratu da. Hartara, hauexek dira Adineko Mahaiko kideak: Belen Maiza Urrestarazu, 61 urtekoa, kide zaharrena eta bertako lehendakaria; Mailen Galparsoro Odriozola, 32 urtekoa, kide gazteena; eta Ana Urkizu Kerejeta, Idazkaria, Udal Idazkaria dena.

Behin mahaia eratuta, Lehendakariak hitza eman dio Enrike Redondo Cavero jaunari, zeinak, Amaia Iztueta Mendizabal, Erramun Amundarain Otegi eta Jone Etxeberria Agirrerekin batera, zinegotziei dagozkien lekuetan eserita, honako testu hau irakurri du euskaraz:

“UDALAREN OSAKETARAKO HAUSNARKETAK

- 1) *Alderdiekin buruturiko hartu-emanetan, gauza bat argi gelditu da, alderdiek alderdiaren legearen kontra izan arren, legalitatean oinarrituko direla bere zinegotzi karguak hartzeko eta herritarren botoek ematen duten zilegitasuna ez dutela onartuko, gure ustez, ausardia falta nabarian geldituko direlarik.*
- 2) *Eta hau guztia, beste zenbait herritan gertatuko denez, zera esan dezakegu: Euskalherrian ez dago demokraziarik edo beste modu batean esanda, E.H.-an demokrazia zero.*
- 3) *Hemendik, herriaren borondatearen aldeko aldarrikapena egin nahi dugu gaur. Herritarren nahia errespetatzen ez duten instituzioek ez dute balio, eskubideetan eta justizian oinarritutako etorkizuna eraikitzeko.*
- 4) *E.H.-ak merezi eta behar duen prozesu eta konponbide demokratikoaren alde urrats tinkoak emateko garaia da eta Udaletatik ere, norabide horretan konpromisoak hartu behar ditugu.*
- 5) *E.H.-a aitortu eta euskal herritar guztion eskubideak eta erabakia errespetatzeko bidean, udaletatik urratsak emateko erabakia hartzen dugu.*
- 6) *Hauteskundeetan gure ordezkariak ilegalizatu dute, instituzioetan prozesu demokratikoaren alde egin nahi dugun lana ere, oztopatu nahian, baina ez dute lortuko. Herri honek behar duen konponbide politikoa aldarrikatzen dugu, lehen bai lehen herri honek merezi duen bake eta demokrazia eskenatokia eskuratu dezan.*
- 7) *Eta azkenik, gainerako alderdiei zera eskatzen diegu: Ez ditzatela hartu ez dagozkien zinegotzi karguak eta guri dagozkigun karguak hartzeko bidea ireki dezatela, LOREG legearen 182.2 artikulua erabiliz. Hau izango da gatazka hau konpontzeko bide bakarra.”*



Testua irakurri ondoren, Ekitaldi Aretorako sarbidea mugatzeko modua salatu du. Gaineratu du hainbat herritar kanpoan geratu direla, aretoan bertakoak ez diren zenbait pertsona armatu (zinegotzi batzuen bizkartzainei buruz ari da) dauden arren.

Momentu honetan, aretoan dauden herritar batzuek hitz bat edo beste esan diote elkarri.

Testua irakurri ondoren, goian aipatutako pertsonak zutitu eta herritarren aurrean jarri dira, "Demokrazia zero" pankartak eskutan dituztela.

Ondoren, zinegotzi hautetsien nortasuna bermatzen duten egiaztagiri guztiak irakurri ditu Lehendakariak. Mahaiko kideek egiaztatu dute bat datozela bere garaian Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udal honi bidali zizkion egiaztagiriekin eta aurkeztu dituzten nortasun agiriekin.

Zinegotzi hautetsiek banan-banan hartu dituzte beren zinegotzi-eserlekuak.

Une honetan eta bilkura osoan zehar, bertaratu diren herritar batzuek hainbat oihu egin, pankarta bat zabaldu eta zenbait panfleto bota dituzte.

1. Udalbatza Osatzea. Jarraian, bilkura honetara Zinegotzi hautetsi guztiak bertaratu direnez, eta, beraz, legezko gehiengo absolutua betetzen denez, Adineko Mahaiko Lehendakariak adierazi du Mahaiko Idazkariak Zinegotzi Hautetsien agintza hartuko duela, legeak kargu eta funtzio publikoetarako ezartzen duen formula erabilia.

EAJ/PNVko zinegotzi hauetsiek –Jose Miguel Santamaría Eceiza, Jon Txurruka Etxezarreta, Alejandra Iturrioz Unzueta–, EAKoek –Belén Maiza Urrestarazu, Joxe Arizmendi Berakoetxea–, EZKER BATUA BERDEAK/ARALARekoak –Mikel Leunda Semperena– agintza egin dute honako formula hau erantzunda: "Bai, legeak hala aginduta".

PSOeko Zinegotzi hautetsiek –Iñaki Dubreuil Churruca eta Monica Marañon Basarte– eta PPkoak –Iñigo María Manrique Cía– beste formula hau erabili dute erantzuteko: "Bai, agintzen dut".

EZKER BATUA BERDEAK/ARALAReko zinegotzi hauetsia –Maialen Galparsoro Odriozola– ondorengo formulaz baliatu da agintza egiteko: "Errepublikarra naiz eta herri subiranoaren aurrean, legeak hala aginduta zin egiten dut"

Hartara, Mahaiko Lehendakariak osatutzat eman du Udalbatza, honako zinegotzi hauekin:

JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA
JON TXURRUKA ETXEZARRETA
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA
BELEN MAIZA URRESTARAZU
MAIALEN GALPARSORO ODRIOZOLA
MIKEL LEUNDA SEMPERENA



IÑAKI DUBREUIL CHURRUCA
MONICA MARAÑON BASARTE
IÑIGO MARIA MANRIQUE CIA

Alkatea aukeratzea

Idazkari Andreak bertaratukoei adierazi die, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 196. artikulua ezarritakoari jarraiki, Udalbatza osatzen den bilkura berean Alkatea aukeratu behar dela, bertan xedatutako prozeduraren arabera. Hauxe da prozedura:

- Hautagaiak izan daitezke hala onartzen duten Zinegotzi zerrendaburu guztiak.
- Hautesleak dira bertan dauden Zinegotzi hautetsi guztiak.
- Hautaketa egingo da txartel sekretu baten bidez, eta bozketa bakar batean.
- Aukeratua izango da botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia; beraz, 7 boto beharko dira gutxienez.
- Bozketa honetan ezein hautagaik ez badu gehiengo absolutua lortzen, automatikoki izendatuko da Alkate boto gehien lortu duen zerrendako burua den Zinegotzi hautetsia.

Lehendakariaren erantzuna onartu ondoren, ondorengo zinegotzi hautetsiak izango dira Alkatetzarako hautagaiak:

- José Miguel Santamaría Eceiza.
- Iñigo M. Manrique Cía.
- Maialen Galparsoro Odriozola.

Idazkariak arrosa koloreko txartel bana eman dio hautesle bakoitzari, eta adierazi die bertan idatzi behar direla Alkate kargurako bozkatzeko duten Zinegotziaren izen-abizenak, eta ondoren, eman zaizkien gutun-azaletan sartu behar dituztela txartelak.

Behin txartel guztiak jasota, botoen zenbaketa egin da. Jarraian, Lehendakariak ozen irakurri ditu txartel bakoitzean Alkate kargurako proposatutako Zinegotziaren izen-abizenak. Hauexek izan dira bozketaren emaitzak:

- José Miguel Santamaría Eceiza: 7 boto.
- Iñigo M. Manrique Cía: 1 boto.
- Maialen Galparsoro Odriozola: 1 boto.

Bozketa honen emaitza ikusita, eta EAJ-PNV-EAko hautagaiak legezko gehiengo absolutua lortu duela kontuan hartuta, Jose Miguel Santamaria Eceiza zinegotzi hautetsia izendatu da automatikoki Udal honetako Alkate.



Horren ostean, Jose Miguel Santamaria Eceiza Zinegotzi hautetsiak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazi du, eta hauteskunde legeak ezarritako legezko formularen arabera agintza egin ondoren, kargua hartu du Udalbatzaren aurrean, honek ematen baitizkio legezko xedapenek egozten dizkioten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiak.

Momentu honetan bertaratu den jendeak Alkate berria txalotu du. Bitartean, haietako batzuek gaitzespen-oihuak bota eta oholtzara hurbildu dira, hain zuzen ere, zinegotziak eta Alkate berria dauden lekura.

Udaltzaingoak parte hartu du egoera baretzeko, eta iskanbila sortu dutenak kaleratu ditu.



Azkenik, Alkate Andreak bukatutzat eman du bilkura hamabiak eta hogeita bost minutu direnean, eta, hain zuzen ere, bilkura honi dagokio nik, Idazkariak, egiaztatzen dudana akta hau.

